

EUSKARA - Perpaus motak

1. Esan hurrengo perpausak alborakuntza hutsezkoak (H) diren edo errepikatzean datzan alborakuntzazkoak (E) diren:

1. Hala goizez, nola gauez, deitu dezakezu telefono honetara. ____
2. Bai Jone, bai zu, zigortuta zaudete. ____
3. Zein kalean, zein etxean, beti dabil musika entzuten. ____
4. Ezin dut orain hori egin, ariketa hau amaitu behar dut. ____
5. Joan zure logelara, oparia utzi dizut ohe gainean. ____

2. Hurrengo perpausak juntagailu bidez daude lotuta. Esan zein motatakoak diren lokailuak: emendiozkoak (EM), hautakariak (HA) ala aurkariak (AU):

1. Gaur klasea aretoan edo gelan emango dugu? ____
2. Durangoko azokan hainbat liburu erosi nituen, baita diska batzuk ere. ____
3. Kirola egitea gustatzen zait, baina asko nekatzen naiz. ____
4. Matematikako azterketa gainditu dut, aldiz, proiektua ez dut amaitu. ____
5. Ikasle guztiak etorri ziren ibilaldira, gainera, denek hartu zuten parte jardueran. ____
6. Liburua irakurri dut, hala ere, ez dut ulertu amaiera. ____
7. Etxetik lan egitea aukeratu dezakezu zein bulegora etorri ahal zara. ____
8. Gabonetan familia bisitatzea ezinbestekoa da, dena dela, lagunekin ere batuko naiz.

9. Bidali mezu bat edo deitu bere etxera. ____
10. Ez nuen askorik ikasi azterketarako, nire lagunak eman zizkidan erantzunak, ordea.

3. Berridatzi perpausak emandako lokailuak erabiliz:

1. Igandean Gabonetako azokara joan nintzen. Ez nuen ezer erosi Gabonetako azokan.

DENA DELA: _____

2. Nire lagunak ez zuen pelikula ikusi. Nire anaiak ez zuen pelikula ikusi.

EZTA ERE: _____

3. Azterketa egin ahal duzu. Ahozko aurkezpena egin ahal duzu.

EDOTA: _____

4. Fabrikako langileek oso ondo egiten dute lan. Fabrikako langileak ez daude pozik lan baldintzekin.

BERRIZ: _____

5. Nerea neska oso argia da. Nereak zirutasun falta handia dauka.

BAINA: _____

6. Akats larrienak talde berdeak egin zituen. Talde gorriak galdu zuen partida.

NAHIZ ETA: _____

7. Mussolini diktadore bat izan zen. Hitler diktadore bat izan zen.

BAITA ERE: _____

8. Ikusmen arazoak dituenek, betaurrekoak erabili behar ditu. Ikusmen arazoak dituenek, lentillak erabili behar ditu.

EDO: _____

8. Medikuak erreabilitazioa behar nuela uste zuen. Nik erreabilitazioa denbora galtzea zela uste nuen.

BAINA: _____

9. Nire osabak afaria prestatu zuen. Nire osabak bonboiak erosi zituen.

ETA: _____

10. Parisera trenez joan zaitezke. Parisera hegazkinez joan zaitezke.

BAI: _____